bat Soziolinguistika aldizkaria

DOSSIERRA

2

# Ikergaien araberako hamazazpi ikerlerro euskal soziolinguistikan

**Patxi Juaristi**
*EHU/UPV Euskal Herriko Unibertsitatea*
patxi.juaristi@ehu.es

Sarrera-data: 2013-9-30 / Onartze-data: 2013-10-30

Laburpena. Euskal soziolinguistek lan asko egin dute azken berrogei urteotan. Kanpoko eragin akademikoek zein egunerokotasun sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak sortutako beharrizan teoriko-praktikoek (politikarien arauketa beharrek, eragileen presioek, ikerlarien interesek...) hainbat gaien azterketa bultzatu dituzte, gaur eguneko euskal soziolinguistika gorpuzteraino. Hala ere, gai batzuk beste batzuk baino arrakasta gehiago izan dute. Kontzienteki edo inkontzienteki, ikerlerro batzuk gehiago landu dira. Artikulu honetan, euskal soziolinguistek azken berrogei urteotan jorratu dituzten ikerlerro garrantzitsuenak aurkezten dira, egin diren oinarrizko ikerketak zein aplikatuak aztertuz. • ***Hitz-gakoak:*** *ikerlerro, ikergai, hizkuntza-aldakortasuna, gaitasuna, erabilera, jarrerak, hizkuntza politika, hizkuntza plangintza, hizkuntza-ukipena, metodologia, teknikak.*

Abstract. Sociolinguists of the Basque language have done much work over the last forty years. External academic influences as well as the theoretical-practical needs created by social, political, economic and cultural everyday realities (politicians' regulation needs, the pressures of players, the interests of researchers, etc.) have driven forward the analysis of many subjects, which have ended up shaping today's Basque sociolinguistics. Nevertheless, some subjects have been more successful than others. Some lines of research have been more developed either consciously or unconsciously. By examining the basic and applied research that has been done, this article presents the most important lines of research developed by Basque sociolinguistics over the last forty years.• ***Key words:*** *line of research, subject of research, language changeability, competence, use, attitudes, language policy, language planning, language contact, methodology, techniques.*

Soziolinguistika kontzeptua 1952. urtean agertu zen lehenengoz, Haver C. Currie-ren artikulu baten izenburuan. Dena dela, diziplina honen ibilbidea 1964. urtean hasi zen, jatorri desberdineko ikerlariak (linguistak, soziologoak eta antropologoak, nagusiki) elkartu zirenean, Kalifornian, nazioarteko kongresu batean (Zarraga, 2010:31). Harrezkero, lan asko egin da soziolinguistika izenaren mendean.

Euskal soziolinguistak Kalifornian elkartutako haiek baino apur bat beranduago hasi ziren lanean, baina, egia esan, azken berrogei urteotan, hainbat ikerketa egin dituzte. Kanpoko eragin akademikoek (Fishman, Ferguson, Mackey, Bourish…), zein egunerokotasun sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak sortutako beharrizan teoriko-praktikoek (politikarien arauketa beharrek, eragileen presioek, ikerlarien interesek…) hainbat gaien azterketa bultzatu dute, gaur eguneko euskal soziolinguistika gorpuztuz.

Hala ere, gai batzuk beste batzuk baino arrakasta gehiago izan dute. Kontzienteki edo inkontzienteki, ikerlerro batzuk gehiago landu dira gure artean. Zeintzuk dira ikergai hauek? Zeintzuk dira euskal soziolinguistika bideratu, forma eman edota osatu duten ikerlerro garrantzitsuenak?

Zarragak dioen bezala (2010:38): “(…) tokian tokiko bibliografiari begiratuta, leku batzuetan hizkuntzaren aldagarritasunari begiratuta dauden lanak baino ez dira onartzen soziolinguistikatzat, baina beste zenbait lekutako tradizioan, soziolinguistikak askoz ere eremu zabalagoa hartzen du. Horixe da, hain zuzen ere, Euskal Herrian, Katalunian eta Kanadan gertatzen dena”.

Artikulu hau Zarragak aipatzen duen ikusgune zabal horretatik egina dago; alegia, soziolinguistika hizkuntza bere testuinguru sozialean aztertzen duen zientzia dela onartuta, euskal gizartearen eta hizkuntzen arteko elkarreraginak aztertu dituzten oinarrizko ikerketek zein aplikatuek jorratu dituzten gaiei begiratu diet, euskal soziolinguisten ikerlerro garrantzitsuenak ezagutzeko asmoz.

Hasieratik esan nahi dut, helburu hau betetzea ez dela erraza izan; besteak beste, euskal gizartean hizkuntzekin gertatzen dena azaltzeko azken lau hamarkadetan ikerketa asko egin direlako, gai asko jorratu direlako eta, gainera, diziplina desberdinetatik (gehienbat, soziologiaren, antropologiaren, historiaren eta psikologiaren ikuspuntutik). Honenbestez, artikulu honetan, nire ustez, jarraipen handiena izan duten ikerlerroak aurkezten ditut; beti ere, nik ezagutzen ditudan liburu, ikerketa eta artikuluetatik abiatuz (abiapuntu mugatua da, beraz). Argi utzi nahi nuke ere, argitaratu gabeko ikerketak, kongresuetara aurkeztutako

**Kanpoko eragin akademikoek (Fishman, Ferguson, Mackey, Bourish…), zein egunerokotasun sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak sortutako beharrizan teoriko-praktikoek (politikarien arauketa beharrek, eragileen presioek, ikerlarien interesek...) hainbat gaien azterketa bultzatu dute, gaur eguneko euskal soziolinguistika gorpuztuz.**

lanak edo ikerketa taldeen gauzatu gabeko egitasmoak ez ditudala kontuan hartu. Honela, bada, aldez aurretik onartzen dut euskal soziolinguistika hemen agertzen dudana baino askoz gehiago dela.

## 1. HIZKUNTZA-ALDAKORTASUNA: GAITASUNA, ERABILERA ETA HAUENGAN ERAGITEN DUTEN FAKTORE SOZIALEN AZTERKETA

Hizkuntza-aldakortasuna aztertzen duen soziolinguistikaren adarrak edo soziolinguistika bariazionistak jarraipen, hedakuntza edota eragin handia izan du Euskal Herrian. Izan ere, euskararen etorkizunaz ardutzen diren erakunde, ikerlari zein eragileek aspalditik dakite euskara indarberritzeko ezinbestekoa dela ezagutzari eta erabilerari buruzko datuak izatea, baita hauengan eragiten duten faktoreak ezagutzea ere, ondoren erabakiak hartzeko.

### 1.1 Gaitasunaren aldakortasunaren azterketa: hizkuntza-gaitasunaren soziolinguistika

1868an, Ladislao Velaco-k euskal hiztunen kopuruak aztertu zituen probintziaka (Intxausti, 1990:134); 1950. urtearen bueltan, Odon Apraizek 1850etik 1950era, euskarak Araban bizi izan zuen atzeraldia ikertu zuen (Apraiz, 1976); eta 1969. urtean, Gaur ikerketa taldeak Elgoibar, Errenteria eta Pasaian euskarak zuen egoera aztertu zuen. Euskal soziolinguistikaren aurrekaritzat hartu daitezkeen lan hauek guztiek ikergai nagusi bat zuten komunean: ezagutza edo euskaraz aritzeko gaitasuna.

Lehen azterlan hauen ostean, 70. hamarkadan, Mikel Zalbideren arabera (Zalbide, 2010), euskal soziolinguistika paradigma berrira eraman zuen ikerketa bat argitaratu zen: Sanchez Carrion-en "Txepetx-en" (1972) *El estado actual del euskera en la provincia de Navarra (1.970)*. Txepetxek euskaraz hitz egiteko gaitasuna edo ezagutza, erabilera eta jarrerak aztertu zituen, gure sozioliguistikan jarraipen zabalena izan duten hiru ikerlerroei hasiera emanez. Mikel Zalbidek, aipatutako lanari buruz, zioen bezala: "(…) erabilera, gaitasuna eta jarrera. Konturatzen ez bagara ere haren ildotik gabiltza geroztik, lautatik hirutan, gai horiek lantzerakoan" (Zalbide, 2010:31).

Txepetxen ostean, Pedro Irizarrek (1973), Jose Anjel Iriagaraik (1973) edo Apat-Echebarnek (Aingeru Iriagaraik) euskararen egoera deskribatzen zuten ikerketak burutu zituzten, euskaraz hitz egiteko gaitasunari eta bere bilakaerari garrantzia emanez (Hernandez, 2010:324; Diez de Ulzurrun, 1999:19-20; Larrañaga eta Iriagaray, 1996:23).

Ezagutza edo gaitasuna aztertzen zuen tradizio honek jarraipena izan zuen 80. hamarkadan, batez ere erakunde publikoen eskutik. Izan ere, hizkuntza politikak zein hizkuntza-plangintzak martxan jartzeko, ezinbestekoa zen gizartearen hizkuntza-gaitasuna ezagutzea. Horrela, bada, 1981. urtean, Eusko Jaurlaritzak gaitasunari buruzko galdera bat sartu zuen EAE-ko (Euskal Autonomia Erkidegoa) errolda-galdetegian; eta 1986an, gauza bera egin zuen Nafarroako gobernuak. Bestalde, 1983an, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak *La Lucha del Euskara* lana argitaratu zuen, EAE-ko biztanleen euskararen ezagutzari buruzko hainbat datu eskainiz (Eusko Jaurlaritza, 1983). Modu berean, 80. hamarkadan, herri-erakundek ordaindu eta Siadeco-k koordinatu zituen hiru ikerketa argitaratu ziren: Euskara Donostian (1986), Euskara Bergaran (1989) eta Enquête sociolinguistique sur l'état de la langue basque dans les provinces de Soule, Basse-Navarre et Labourd Intérieur (1989). Horrez gain, Siadekok Tolosako (1983), Irungo (1983), Basauriko (1985), Iruñeko (1986), Vitoria-Gasteizko (1986), Bilboko (1990), Errenteriako (1990), Iparraldeko (1987, 1991) eta Getxoko (1994) egoera soziolinguistikoak aztertu zituen. Ikerketa hauetan guztietan, hizkuntza-gaitasunaren azterketak berebiziko garrantzia izan zuen (www.siadeco.net).

Baina erakunde publikoek ez ezik, unibertsitatean ere 80. hamarkadan hasi ziren gaitasunaz arduratzen. Besteak beste, hor daude Txillardegiren *Elebidun Gizartearen azterketa matematikoa* (Alvarez, 1984) edo Mari Jose Azurmendiren lanak (Azurmendi, 1986a eta1986b).

Zalantza gabe, ezagutzaren edo hizkuntza-gaitasunaren azterketa sinkroniko zein diakronikoak aspaldikoak dira gure artean. Euskararen biziberritze prozesuan erabakiak hartzeko oinarrizko informazioa denez, hizkuntza-gaitasunaren azterketa ondo finkatutako ikerlerroa da; ezbairik gabe, etorkizunean ere jarraipena izango duena.

### 1.2 Erabileraren aldakortasunaren azterketa: hizkuntza-erabileraren soziolinguistika

Arestian esan bezala, "Txepetx-ek" (1972) *El estado actual del euskera en la provincia de Navarra (1.970)* lanean, erabilera ere aztertu zuen. Hala ere, Euskal Herria bere osoan hartuta, erabilerari buruzko lehengo datuak 1979ko *Hizkuntza Borroka Euskal Herrian* ikerketan agertu ziren (Euskaltzaindia-Siadeco, 1979). Liburuaren sarreran irakurri daitekeen bezala, lanaren helburuetariko bat zen: " (…) (euskararen) erabilpen-gradua eta era desberdinak ezagutzea" (Euskaltzaindia, 1979:14). Handik lau urtetara, 1983an, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Ka-

**Zalantza gabe, ezagutzaren edo hizkuntza-gaitasunaren azterketa sinkroniko zein diakronikoak aspaldikoak dira gure artean. Euskararen biziberritze prozesuan erabakiak hartzeko oinarrizko informazioa denez, hizkuntza-gaitasunaren azterketa ondo finkatutako ikerlerroa da; ezbairik gabe, etorkizunean ere jarraipena izango duena.**

bineteak argitaratu zuen *La Lucha del Euskara* lanean ere, EAE-ko biztanleen euskararen erabilerari buruzko hainbat datu eskaini ziren (Eusko Jaurlaritza, 1983). Txillardegik, bere *Elebidun gizarteen azterketa matematikoa* (1984) liburuan, euskararen ezagutzari eta erabilerari buruzko aurreikuspen bat egiten zuen, eta Maria Jose Azurmendik ere landu zuen erabileraren gaia, euskal gazteek euskararekiko zituzten harremanak aztertu zituenean (Azurmendi, 1986a eta 1986b).

Euskal soziolinguistak hasieratik ikusi zuten, euskararen normalkuntza prozesuan, ezagutzarekin batera, erabilera ere ikertu behar zela. Horrela, 1991. urteko errolda-galdetegian, etxean hitz egiten den hizkuntzari buruzko galdera bat sartu zen, eta 1991ko Euskal Herriko lehen inkesta soziolinguistikoak etxeko zein toki publikoetako erabilerari buruzko hainbat datu eskaini zituen (Eusko Jaurlaritza-Nafarroako Gobernua, 1995). Hemendik aurrera, euskararen erabilera zalantza gabeko ikerlerroa da euskal soziolinguistikan; eremu geografiko zehatzetan (Euskal Herrian, EAEn, Iparraldean, Nafarroan, eskualdeetan…), zein gizarte eremu zehatzetan ikertu dena (eskolan, unibertsitatean, herri-erakundeetan, testuinguru formaletan, kalean…). Bereziki garrantzia hartu du euskararen kale-erabileraren neurketak, nire ustez, ikerlerro garrantzitsu bihurtzeraino.

1985. urtean, Getxon egin zen Hizkuntza minorizatuen soziologia kongresuan, Iñaki Larrañagak, Siadeco-ko ikerlariak, "Euskararen Erabilpen Erreala Gipuzkoan: Leku Publikoetan, Udal Erakundeetan, Gizarteko Zerbitzuetan" komunikazioa aurkeztu zuen (Larrañaga, 1985). Nire ustez, lan honek ikerlerro berri eta garrantzitsu bat zabaldu zuen euskal soziolinguistikan; hain zuzen ere, hiztunek euskararen erabilerari buruz ematen zituzten erantzun subjektiboak ikertu beharrean, erabilera erreala edo objektiboa neurtzen zuelako, behaketa zuzena teknikaren bidez.

Hemendik abiatuta, 1989an, Euskal Herria osoa kontuan hartu zuen euskaren kale-erabileraren lehen neurketa egin zuen EKB-k, Siadeco-k garatutako metodologia erabiliz (Altuna, 2007:18). Harrezkero, beste bost alditan egin dira kale-erabilera neurketak, Soziolinguistika Klusterraren eskutik (1993an, 1997an, 2001ean, 2006an eta 2011n).

Euskararen erabilera orokorrarekin batera, kale-erabileraren azterketa ikerlerro garrantzitsua da euskal soziolinguistikan; hemen zein hemendik kanpo azterketa eta gogoeta ugari eragiten duen ikerlerroa da. Altunak eta Basurkok dioten bezala: "Dagoeneko hogeita bost bat urteko esperientzia metatuta, metodologia aski frogatua eta kontrastatua dugu. Hemendik kanpo ere, geroz eta ezagunagoa da ikerlana" (Altuna eta Basurto, 2013).

## 1.3 Ezagutzan eta erabileran eragiten duten faktore sozialen azterketa eta gazteen soziolinguistika

Euskal soziolinguistak ez dute bakarrik ikertu hizkuntza-gaitasuna eta erabilera, hauengan eragiten duten faktore sozialak ere aztertu dituzte. Hain zuzen ere, geroago jorratuko ditugun motibazio edo jarrerekin batera, zazpi dira, nire ustez, Euskal Herriko errealitate soziolinguistikoa azaltzeko gehien erabili diren aldagai aske edo faktore esplikatzaileak:

— adina (ikerketa batzuk aipatzearren, 1989ko, 1997-1998ko, 2005ko eta 2009ko mapa soziolinguistikoak; 1991ko, 1997ko, 2003ko, 2008ko eta 2013ko Inkesta Soziolinguistikoak; Martinez de Luna, 2013)
— sexua (Amonarriz, 1995; Echeverria, 2000 eta 2003)
— lehen hizkuntza (mapa soziolinguistiko eta inkesta soziolinguistikoetan)
— ingurunekoen (familia, lantokia eta eremu formala) hizkuntza-gaitasuna eta erabilera maila (Martinez de Luna, 2013; mapa soziolinguistiko eta inkesta soziolinguistikoetan)
— erabilera erraztasuna (mapa soziolinguistiko eta inkesta soziolinguistikoetan)
— gune soziolinguistikoa (mapa soziolinguistikoetan, inkesta soziolinguistikoetan eta kale-erabileren azterketetan)
— jatorria (mapa soziolinguistiko eta inkesta soziolinguistikoetan)

Esperientziak erakutsi du aldagai hauek direla gure errealitate soziolinguistikoan gehien eragiten dutenak, eta, horregatik, nire ustez, beste aldagai batzuk baino gehiago ikertu dira. Zentzu honetan, kontuan izan behar da "(…) hizkuntzetan eragiten duten arrazoi sozialek ez dituzte(la) leku guztietan ondorio berberak izaten. Aitzitik, toki batean garrantzitsua den aldagaiak ez du zertan beste batean eraginik izan. Gizartearen egituraketa moduek, beraz, zerikusi handia dute ikerketa soziolinguitikoa egiteko aldagaien hautaketan" (Martinez Bermudez,2010:).

Gehien ikertu diren zazpi aldagai hauekin alderatuta, bigarren maila batean gelditzen dira hezkuntza maila (Martinez de Luna, 2013) eta ideologia politikoa (Tejerina, 1992; Barandiaran, 2002 eta Martinez de Luna, 2013). Bi aktore hauen eragina gutxiago ikertu dira euskal soziolinguistikan.

Azkenik, iruditzen zait ikertu gabeko (edo oso gutxi ikertutako) aldagaiak ere badaudela:

**_Euskararen erabilera orokorrarekin batera, kale-erabileraren azterketa ikerlerro garrantzitsua da euskal soziolinguistikan; hemen zein hemendik kanpo azterketa eta gogoeta ugari eragiten duen ikerlerroa da._**

— ekonomia edo egoera ekonomikoa
— adskripzio erlijiosoa
— gizarte klasea
— lanbidea

Euskal soziolinguistek aztertu dizuten aldagai aske gehienek ez dute ikerlerrorik sortu; ia gehienetan, erabilerarekiko eta ezagutzarekiko harremanetan ikertu direlako.

Desberdina da adinarekin gertatutakoa. Izan ere, adinaren edo, hobeto esanda, adin tarte bateko kideek euskararekiko duten harremanaren azterketa ikerlerro garrantzitsua bihurtu da. Hain zuzen ere, gaztetxoen hizkuntza-gaitasunaren eta erabileraren (baita jarreren) azterketak jarraipen handia izan du eta du euskal soziolinguistikan; nire ustez, ikerlerro garrantzitsua bihurtzeraino.

Lehengotariko azterketak M. J. Azurmendik burutu zituen 1986an (Azurmendi, 1986a eta 1986b). Dena dela, ikerlerro gisa, gazteen eta hizkuntzen arteko harremanen azterketa 90. hamarkadan hasi zen: 1990. urtean, Mari Jose Azurmendik berak euskal gazteek euskararekiko duten harremana aztertu zuen (Azurmendi, 1990a eta 1990b). 1991n, Marije Lezetak eta Elena San Martinek *Giro Urbanoko gazteak eta Euskara* liburua argitaratu zuten (Lezeta eta San Martin, 1991). 1994. urtean, Joxe Mari Iraolak *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian* ikerlana aurkeztu zuen, eta 1995ean, Iñaki Martinez de Lunak *Etorkizuna Aurreikusten: Euskal Autonomi Elkarteko gaztetxoen egoera soziolinguistikoa* (1995). Bestalde, Jausoro, Martínez de Luna eta Dávila-k Gazte Donostiarren hizkuntzarekiko harremanak aztertu zituzten (1998:51-81), eta Pello Jauregik gazte taldeak euskalduntzeko estrategiak (1998). Honela, bada, 90. hamarkadaz geroztik, gazteen soziolinguistika ikerlerro finkatuta da euskal soziolinguistikan; harrezkero ere emaitza onak eman dituena. Ikerketa batzuk aipatzearren, hor daude Martinez de Lunak eta Kontxesi Berrio-Otxoak zuzendu zuten *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara* ikerketa (Martinez de Luna eta Berrio-Otxoa, 2000) edo 2003an, Pello Jauregik Lasarte-Oriako gazteen artean egin zuena. Ezin aipatu gabe utzi 2003. urtean martxan jarri zen Arrue egitasmoa, haur eta gazteen eskola giroko hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak ikertzeko.

Euskararen biziberritze prozesua ondo bideratzeko, hiztun gazteenek duten euskararen ezagutza mailari, erabilerari eta jarrerei buruzko datuak izatea ezinbestekoa da. Horregatik, hain zuzen ere, euskal gaztetxoek hizkuntzekin dituzten harremanen azterketa ikerlerro garrantzitsua bihurtu da euskal soziolinguistikan.

## 1.4.Ezagutza, erabilera eta hauengan eragiten duten faktoreak esparru desberdinetan

Ezagutza, erabilera eta hauengan eragiten duten faktoreak modu orokorrean ikertu dira eremu geografiko desberdinetan (Euskal Herria, Nafarroa, EAE…), baina, horrekin batera, esparru sozial zehatzak ere ikertu dira. Nire ustez, gehien ikertu diren gizarte eremuak zazpi dira:

— Etxea
— Hezkuntza sistema
— Erakunde publikoak
— Komunikabideak
— Lan-mundu pribatua
— Espazio publikoak
— Teknologia berriak

Esparru hauei lotuta, zazpi ikerlerro desberdin sortu direla iruditzen zait.

### *1.4.1 Ezagutza, erabilera eta hauengan eragiten duten faktoreak etxean: transmisioaren soziolinguistika*

Euskararen normalizazio prozesuan, ezinbestekoa izan da etxeko hizkuntza-dinamikak aztertzea; bereziki etxeko transmisioaren berezitasunak.

Nik dakidala, transmisioari buruzko lehenengo datuak 1979. urtean bildu ziren *Hizkuntza Borroka Euskal Herrian* ikerketan (Euskaltzaindia, 1979). 80. hamarkadaren hasieran, hainbat herritan Siadeco-k egin zituen ikerketetan ere transmisioaren gaia oso presente egon zen (www.siadeco.net). Dena dela, transmisioaren gaiak 1986. urtean hartu zuen benetako indarra, EAE-ko errolda-galdetegian, ezagutzari buruzko galderari, ama hizkuntzari buruzko beste galdera bat gehitu zitzaionean. Harrezkero, familiaren baitako hizkuntzaren transmisioaren gaia presente egon da EAE-ko Soziolinguistikako Mapa guztietan, Euskal Herriko inkesta soziolinguistikoetan zein beste hainbat hainbat ikerketetan. Besteak beste, guraso motek (biak elebidunak edo bikote mistoak) transmisioan duten eragina (Iraola, 2004; Arruti, 1997), transmisioaren eta erabileraren arteko harremanak (Aizpurua, 2006), ikastoletako ikasle ohien transmisioa (Eusko Jaurlaritza, 2005a eta 2005b) edota transmisioan eragiten duten faktoreak aztertu dira (Eusko Jaurlaritza, 2008).


BAT Soziolinguitika Aldizkaria 87-88, 2013 (2-3) | 49-72 | Andoain (Gipuzkoa)
ISSN: 1130-8435 | Lege gordailua: SS120/90

**Euskararen biziberritze prozesua ondo bideratzeko, hiztun gazteenek duten euskararen ezagutza mailari, erabilerari eta jarrerei buruzko datuak izatea ezinbestekoa da. Horregatik, hain zuzen ere, euskal gaztetxoek hizkuntzekin dituzten harremanen azterketa ikerlerro garrantzitsua bihurtu da euskal soziolinguistikan.**

### *1.4.2 Ezagutza, erabilera eta hauengan eragiten duten faktoreak hezkuntzan: hezkuntzaren soziolinguistika*

Hezkuntza-sistema osatzen duten erakundeen baitan (euskaltegietan, eskoletan, ikastoletan edo unibertsitatean) euskararen normalizazioaren alde lan asko egin da. Ondorioz, erakunde hauetako ikasleen hizkuntza-gaitasunari, erabilerari eta jarrerei buruzko ikerketa ugari burutu dira.

Egia esan, hezkuntzaren soziolinguistikak tradizio luzea du Euskal Herrian. 1985. urtean, Getxon egin zen Hizkuntza Minorizatuen Soziologia Kongresuan, hezkuntzaren soziolinguistikari loturiko hainbat komunikazio aurkeztu ziren (Idiazabal, 1985; Etxeberria, 1985; Azurmendi, 1985), eta harrezkero, asko izan dira gai honen inguruan egin diren ikerketak.

Besteak beste, hizkuntza ereduak (Azurmendi eta Luque, 2006; Idiazabal eta Manterola, 2009), irakaskuntza ez unibertsitarioko ikasleen euskararekiko jarrerak (Basterretxea, 1987), ikasleen hizkuntza-erabilera eta motibazioak (Cenoz, 2009; Martinez de Luna, Suberbiola eta Basurto, 2009), eskoletako hizkuntza-plangintzak (Zalbide, 1998 eta 2000) edo euskarazko irakaskuntzan eragiten duten faktoreak aztertu dira (Siadeco, 1986; Erriondo, Isasi eta Rodriguez, 1993; Alonso, 2001). Bereziki ikerketa asko egin dira ikastoletako ikasleen hizkuntza erabileraren (Eusko Jaurlaritza, 2005), gaitasunaren (Siadeco, 2005) eta hizkuntza egitasmoen inguruan (Siadeco, 1994; Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa, 2009). Unibertsitatearen eta hizkuntzaren arteko harremanen inguruko azterketak ere egin dira (Siadeco,1993; Garmendia, 1997; Cenoz, 2010), baita euskaltegietako ikasleen berezitasunak (Siadeco, 1978; Perales, 2007) edota hauek euskara ikasteko dituzten motibazioei (Otegi, 2006) buruzkoak ere.

Hezkuntzaren soziolinguistika ondo errotutako ikerlerroa da gurean. Tradizioa eta jarraipena izan du, eta etorkizun ere horrela izaten jarraituko duela iruditzen zait.

Ikerlerro honekin bukatu aurretik, aipatzekoa da 2000. hamarkadaren hasieran, euskal hezkuntza-sisteman sartu diren etorkinen eta euskararen arteko harremanen ikerketak hasi zirela (Etxeberria, 2004; Fullaondo, 2004; Imaz eta Artetxe, 2004; Septien Ortiz, 2006 eta Etxeberria eta Elosegi, 2008; Barquin, 2008). Iruditzen zait, etorkinen soziolinguistikaren inguruan ikerlerro berri bat hasi dela.

### *1.4.3 Ezagutza, erabilera eta hauengan eragiten duten faktoreak herri-erakundeetan: herri-erakundeen soziolinguistika*

Euskarak herri-erakundeetan izan behar duen tokiari buruzko ardura aspaldikoa da gurean. Aurretik aipatutako Getxoko kongresuan , Jean

Haritschelarrek (1985) eta Kike Amonarrizek (1985) euskararen eta administrazioaren arteko harremana jorratu zuten.

90. hamarkadaren hasieran, EAEko herri erakundeetan (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, udalak, …) euskararen erabilera normalizatzeko planak hasi ziren (guztira lau plan izan dira, azkena 2008-2012 urteei dagokiena); eta horrekin batera, ezarritako helburuen ebaluazioak etorri ziren.

Herri-erakundeen baitan egin zen lehenengotariko ikerketa Bizkaiko Aldundiak egin zuen 1992. eta 1993. urteetan, Bizkaiko herri-erakundeetan euskararen erabilera aztertzeko (Elzo, Bilbao, Gorostiaga, Juaristi, Laespada, Larrañaga eta Lobera, 1995). Hemendik aurrera, herri-erakundeen soziolinguistikaren baitan hainbat ikerketa egin dira (Amundarain, 2005; Unanue, 2006).

### *1.4.4 Euskararen erabilera eta honengan eragiten duten faktoreak komunikabide tradionaletan: komunikabide tradizionalen soziolinguistika*

Komunikabide tradizionaletan (prentsa idatzia, irratia eta telebista) euskarak duen presentzia aspalditik ikertzen da Euskal Herrian (Zuberogoitia, 2005, Arana, Amezaga eta Azpillaga, 2010). Asko dira ikuspuntu sinkroniko zein diakronikotik, euskarak irratietan (Azkargorta, 1986), telebistan (Torrealdai, 1985; Nor ikerketa-Taldea, 2000, 2006; Amezaga eta Arana, 2008) edo prentsa idatzian (Landa, 1985; Agirreazkuenaga, 1989; Diaz Noci, 1995; Gonzalez Gorosarri, 2009; Basterretxea, González Gorosarri, Gutiérrez, Ramírez de la Piscina, Torregarai, Urkiza, eta Zuberogoitia, 2005) duen presentzia aztertu dutenak.

### *1.4.5 Ezagutza, erabilera eta hauengan eragiten duten faktoreak lan-mundu pribatuan: lan-mundu pribatuaren soziolinguistika*

1991. urtean, Eusko Jaurlaritzak eta Elhuyar Kultur Elkarteak hitzarmena sinatu zuten, enpresa pribatuetan euskararen erabilera sustatzeko. Horrela, industria-arloko lehenengo proiektu pilotua Elay taldean abiatu zen, eta honen atzetik, Ikerlan, CAF eta Arlan bezalako enpresek ere euren euskera-planak abiatu zituzten.

Era honetako egitasmoen emaitzak ebaluatzeko edota hauetan parte hartu duten langileen jarrera, portaera eta motibazioak aztertzeko, hainbat ikerketa burutu dira (Urdangarin, 1993 eta 2003; Unanue eta Intxausti, 2002; Arratibel eta Irastorza, 2005; Ezagutzaren Klusterra, 2005). Bereziki aipatzekoa da EraLan egitasmoa, lan-mundu pribatuan euskara erabiltzeko oztopo diren faktoreak identifikatzea eta horietan positiboki eragitea helburuak dituena (Lujanbio eta Marko Juanikorena, 2008).


BAT Soziolinguitika Aldizkaria 87-88, 2013 (2-3) | 49-72 | Andoain (Gipuzkoa)
ISSN: 1130-8435 | Lege gordailua: SS120/90

***Hezkuntzaren soziolinguistika ondo errotutako ikerlerroa da gurean. Tradizioa eta jarraipena izan du, eta etorkizun ere horrela izaten jarraituko duela iruditzen zait.***

Baina enpresa munduan ez ezik, merkataritzako euskararen erabilera-planak ebaluatzeko ikerketa batzuk ere egin dira (Agirretxe, 2000 eta Rodriguez, 2005). Modu berean, Eusko Jaurlaritzaren eskutik, euskararen erabilera ikertu da EAEko jatetxe eta tabernetan (2003), txikizkako merkataritza-establezimenduetan (2003) eta denda, banku eta kutxetan (2006, 2013).

### *1.4.6 Hizkuntza paisaiaren azterketa*

Gutxi jorratu den ikerlerroa bada ere, hizkuntza paisaia aztertzen duten ikerketa batzuk egin dira Euskal Herrian. Besteak beste, aipatzekoa da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, 2006. eta 2007. urteetan, EAE-ko eremu publikoan zein pribatuan hizkuntza-paisaia aztertu zuela, eta EHU-k eta Donostiako Euskararen Udal Patronatuak Donostiako hizkuntz paisaia.

### *1.4.7 Ezagutza, erabilera eta hauengan eragiten duten faktoreak teknologia berrietan: ikt-en soziolinguistika*

Komunikabide tradizionaletan ez ezik, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan euskarak duen presentziari buruzko ikerketa batzuk ere egin dira. Oraindik gehiegi jorratu gabeko ikerlerroa bada ere, badira Interneten (Sagarna, 2003) edo gizarte sareetan (Aizpurua:2010) euskararen erabilera nolakoa den aztertu dutenak.

### 1.5 Ezagutza, erabilera eta hauengan eragiten duten faktoreen azterketa ikuspuntu historikotik: soziolinguistika historikoa

Euskararen atzeraldi edo ahultze prozesua ulertu edota azaldu nahirik, ezagutzaren, erabileraren, transmisioaren eta hauengan eragiten duten faktoreen bilakaerari buruzko ikerketa ugari egin dira Euskal Herrian. Batzuk aipatzearren, hor daude Koldo Mitxelenaren (1977 eta 1988), Odon Apraizen (1976), Apat-Echebarneren (1974), Antonio Tovarren (1950 eta 1959), Caro Barojaren (1945-1946), Joseba Intxaustiren (1990) Jimeno Jurioren (1997) edo Xabier Erizeren lanak (1997).

## 2. HIZKUNTZEKIKO JARRERAK ETA AURREIRITZIAK

Hizkuntzekiko edota hiztun-taldeekiko jarrerak eta aurreiritziak aspalditik aztertzen dira euskal soziolinguistikan. Arestian esan bezala, Jose Mª Sanchez Carrion-ek "Txepetx-ek" 70. hamarkadaren hasieran landu zuen gai hau, eta ostean egin zen *Hizkuntza Borroka Euskal Herrian* (1979) ikerlanean ere jarrerek berebiziko garrantzia izan zuten.

Harrezkero, hainbat lanetan ikertu dira euskararekiko jarrerak; euskal soziolinguistikan ikerlerro garrantzitsua bihurtzeraino (Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 1983; Sanchez Carrion, 1987; Eusko Jaurlaritza, 1991; Nafarroako Gobernua, 1996; Azurmendi, Bachoc eta Zabaleta, 2001; Perales, 2001; Amorrortu, 2001a eta 2001; Baxok, Etxegoin, Lekunberri, Martinez de Luna, Mendizabal, Ahedo, Itzaina eta Jimeno, 2007; Hernandez Garcia, 2007; Martinez de Luna, 2013).

EAE-ko Mapa Soziolinguistikoetan zein Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoetan euskararekiko jarrerak eta aurreiritziak modu orokorrean aztertu izan dira, gehienetan hizkuntza-gaitasunarekin eta erabilerarekin batera. Hala ere, hizkuntzekiko jarreren gaia eremu edota testuinguru zehatzetan ere aztertu da: lan-munduan pribatuan (Arratibel eta Irastortza, 2005), hiri zehatzetan (Perez de Arribe, 1986), eskualdetan (Aiestaran, 2005), herrietan (Oroz, 1999), unibertsitatean (Amorrortu, 2001a), euskaltegietan (Otegi, 2006) edo ikasleen artean (Basterretxea, 1987).

Aipatzekoa ere bada, gazteen soziolinguistika ikerlerroaren baitan, hainbat ikerketa burutu direla gaztetxoen euskararekiko jarreren inguruan (Martinez de Luna, 1995; Larrañaga, 1996 eta 2003; Martinez de Luna eta Berrio-Otxoa, 2000; Aiestaran, 2007).

Eta jarrerekin batera, motibazioak ere ikertu dira. Besteak beste, aipatzekoa da Martinez de Lunak eta Jausorok hizkuntzekiko motibazioak ikertu zituztela (1996 eta 1998), M. J. Azurmendik gazteen erabileran zeuden motibazioak aztertu zituela (Azurmendi, 1986), eta Perales-ek (1989), Arratibelek (1999) eta Otegik (2006) euskaltegietako ikasleen motibazioak. Lan-ildo honetan koka daiteke Bat aldizkariaren 86. zenbakia: Framing Berria euskararentzat.

2009an, Amorrortu, Ortega, Idiazabal, eta Barreñak *Erdaldunen euskararekiko aurreritziak eta jarrerak aztertu zituzten (2009).* Jarreren azterketan ikerketa berritzailea izan zela iruditzen zait, alde batetik, fokoa bakarrik jarreretan jartzen zelako eta, bestetik, biztanleria osoa ikertu beharrean, erdaldunen jarrerak eta aurreiritziak ikertzen zirelako.

## 3. HIZKUNTZA POLITIKA ETA HIZKUNTZA-PLANGINTZA

Arkaitz Zarragak dioen bezala, “(…) ezin nahas daitezke hizkuntza-politika eta hizkuntza-planifikazioa. Politikak lotura du ideiekin, legedi eta araudiekin, egitasmoak asmatzearekin…Plangintzak, berriz, ideia edo helburu horiek betetzera bideratutako erabakiak dira; helbururako norabidean diseinatutako egitasmo eta neurriak (Zarraga, 2010:77).

**Komunikabide tradizionaletan ez ezik, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan euskarak duen presentziari buruzko ikerketa batzuk ere egin dira. Oraindik gehiegi jorratu gabeko ikerlerroa bada ere, badira Interneten (Sagarna, 2003) edo gizarte sareetan (Aizpurua:2010) euskararen erabilera nolakoa den aztertu dutenak.**

Nire ustez, euskal soziolinguistikaren baitan egin diren oinarrizko ikerketa zein ikerketa aplikatu askoren azken helburua izan da datu soziolinguistikoak biltzea, hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza egokiak sortzeko, hauengan eragiteko edota hauek ebaluatzeko.

70. hamarkadan eta 80. hamarkadaren hasieran, Siadeco-k eta Jaurlaritzak egin zituzten ikerketek 1983. urtean Euskararen Aholku Batzordeak argitaratu zuen *Euskararen Politikarako Oinarriak* liburuxka argitaratzeko balio izan zuten. EAE-ko mapa soziolinguistikoen, Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoen zein beste hainbat ikerketen azken helburua hori bera izan da: hizkuntza politikak eta hizkuntza-plangintzak zehaztea, hauengan eragitea edota hauek ebaluatzea (UEU-ko soziolinguistika saila, 1991; Arruti, 1992; Eusko Jaurlaritza, 2012; Coyos, 2006).

